



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO MAIATZAREN 6AN  
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ez dira bertaratu:** Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Itziar Basterrika Unanue.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

**1.1.- 2022/04/28KO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek 2022ko apirilaren 28ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**1.2.- 2022/04/29KO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek 2022ko apirilaren 29ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- ENPLEGU PUBLIKOAREN BEHIN BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO ABENDUAREN  
28KO 20/2021 LEGETIK ERATORRITAKO USURBILGO UDALEKO EGONKORTZEKO  
ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA.**

Espedientea: ID.06/2022-0078

**IKUSIRIK**

2021eko azaroaren 25ean Udalbatzak onartu zituen 2022ko Lanpostuen zerrenda eta Plantilla Organikoa eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021eko abenduaren 23an argitaratu. Ondoren, 2022ko martxoaren 17an Udalbatzak 2022ko Lanpostuen zerrendaren aldaketak onartu zituen eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialean ziren, 2022ko otsailaren 22an Plantilla eta apirilaren 8an Lanpostuen zerrenda.

**KONTUAN HARTURIK**

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek Lan Eskaintza Publikoaren onarpena erregulatzen dute.



Usurbilgo Udala

Abenduaren 28an onartu zen 20/2021 Legea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, eta zenbait berezitasun ezarri ziren lanpostu publikoen eskaintzen gainean. Administrazioek onartu egin behar dituzte berezitasun horiek, behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesu baten barruan.

20/2021 Legearen 2.2 artikulua ezartzen duenez, egonkortze-prozesu horiek antolatzen dituzten enplegu-eskaintzak onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu beharko dira, 2022ko ekainaren 1a baino lehen.

Lan Publikoko Eskaintza langileen ordezkariekin negoziatu da eta 2022ko apirilaren 27ko dataz Pertsonal, Antolakuntza eta Kontratazio Teknikariak eta Udal Idazkariak txostena osatu dute.

Alkatetzaren 2005/1064 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENGOA.-** Enplegu publikoaren behin behinekotasuna murrizteko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako Usurbilgo Udaleko Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera doan I. Eranskinean jasotakoaren arabera.

**BIGARRENGOA.-** Usurbilgo Udaleko 2011, 2018, 2019 eta 2020 ekitaldietako Enplegu Publikorako Eskaintzak aldatzea eta 20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintzak eragindako zatian bertan behera uztea.

**HIRUGARRENGOA.-** 20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

I. ERANSKINA

BEHIN -BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO  
20/2021 LEGEAREN BAITAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

FUNTZIONARIOAK:

IZENA	KODEA	SAILKAPEN TALDEA / AZPITALDEA	ESKALA	AZPIESKALA	LAN SAIOA	KOPURUA	HE ***	TXANDA	HAUTATZE SISTEMA
Pertsonal, antolakuntza eta kontratazioko Teknikaria	1.2	A1	AO	TO	Osoa	1	4	Irekia	Lehiaketa  (6. xedapen gehigarria)
Herritarren arretarako Administrari Laguntzailea	1.3	C2	AO	AL	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa  (6. xedapen gehigarria)
Herritarren arretarako Administrari Laguntzailea	1.4	C2	AO	AL	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa  (6. xedapen gehigarria)
Idazkaritzako Administraria	1.5	C1	AO	AA	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa  (6. xedapen gehigarria)
Errenta eta Ondare Teknikaria	2.2	A2	AB	TB	Osoa	1	4	Irekia	Lehiaketa  (6. xedapen gehigarria)
Kontu- hartzaitzako Administraria	2.4	C1	AO	AA	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa  (8. xedapen gehigarria)

Udaltzaina	3.7	C1/C2	AB	ZB	Osoa	1	3	Irekia		Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Zerbitzu eta obretako Administraria	5.1	C1	AO	AA	Osoa	1	3	Irekia		Lehiaketa (8. xedapen gehigarria)
Operario 1	5.10	C2	AB	ZB	Osoa	1	2	Irekia		Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Operario 2	5.12	E	AB	ZB	Osoa	1	1	Irekia		Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Operario 4	5.13	E	AB	ZB	Osoa	1	1	Irekia		Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Operario 4	5.14	E	AB	ZB	Osoa	1	1	Irekia		Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Operario Laguntzailea	5.18	E	AB	ZB	Osoa	1	1	Irekia		Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Operario Laguntzailea*	-	E	AB	ZB	Murriztua	2	1*	Irekia 1	Ezgaitasuna 1	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Gizarte Zerbitzu	6.1	A2	AB	TB	Osoa	1	4**	Irekia		Lehiaketa

eta Berdintasun Saileko burua									(6. xedapen gehigarria)
Gizarte Langilea	6.3	A2	AB	TB	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa-Oposaketa (2.artikulua)
Kult., Eusk. Gazteria/Garapen Ekonomikoa eta Hezkuntza Administraria	7.5.8.2	C1	AO	AA	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Kiroldegiko instalazioen irauntzailea	9.2	C1	AB	ZB	Osoa	1	2	Irekia	Lehiaketa (8. xedapen gehigarria)

Interpretazio kodea:

- AO: Administrazio Orokorra
- AB: Administrazio Berezia
- TO: Eskala Orokorreko Teknikaria
- TB: Eskala Bereziko Teknikaria
- AA: Administraria
- AL: Administrari Laguntzailea
- ZB: Zerbitzu Bereziak

Oharrak:

- \* Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako txostena eskatu eta Lanpostuen Zerrendan eta Plantilan sortzeke
- \*\* Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako txostena eskatzeke
- \*\*\* Guztiek Derrigortasun Data beteta dute, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako txostena eskatzeke dutenak salbu

**LAN ITUNPEKOAK:**

<b>IZENA</b>	<b>KODEA</b>	<b>SAILKAPEN TALDEA</b>	<b>LANSAIOA</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>HE*</b>	<b>TXANDA</b>	<b>HAUTATZE SISTEMA</b>
Koordinatzailea eta Laneko prestakuntza eta orientazio irakaslea	11.1	A2	Osoa	1	4	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Oinarrizko heziketa irakaslea (1.m)	11.2	A2	Osoa	1	3	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Oinarrizko heziketa irakaslea (2.m)	11.3	A2	Murritzua	1	3	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Sukaldaritza irakaslea (1.m)	11.4	C2	Osoa	1	2	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Ileapainketa irakaslea (1.m)	11.5	C2	Osoa	1	2	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Sukaldaritza irakaslea (2.m)	11.6	C2	Murritzua	1	2	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)
Ileapainketa irakaslea (2.m)	11.7	C2	Murritzua	1	2	Irekia	Lehiaketa (6. xedapen gehigarria)

**Oharrak:** HE\*: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako txostena eskatu eta Lanpostuen Zerrenda aldatzeke

### 3.- TXOGITXU, S.L. ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEKO AZEKI AUNDI KALEA 6 HELBIDEAN EZARRI NAHI DUEN HARAGI-PRODUKTUAK EGITEKO JARDUERARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, TXOGITXU, S.L. enpresak Atallu industrialdeko Azeki aundi kalea 6 helbidean ezarri nahi duen haragi-produktuak egiteko jardueraren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2021-0252

ESKATZAILEA: TXOGITXU, S.L.

JARDUERA MOTA: Haragi-produktuak egitea

NON KOKATUA: Azeki aundi kalea 6 / Atallu industrialdea

Aurrkeztutako proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, 2022ko apirilaren 25ean honako txostena eman du:

GAIA:	Atallu Industrialdeko Azeki Aundi Kaleko 6. zenbakian kokatutako pabiloian behiak zatitzeko industria ezartzeko jarduera baimena
ESKATZAILEA:	Carlos Templado Vallejo
ESKAERA DATA:	2021/VI/23
ERREG. ZBKIA:	HZ.07/2021-0171
ESP. ZBKIA:	2021-2217
ERLAZIONATUA:	HZ.04/2021-0251: Atallu industrialdeko Azeki Aundi kalea 6 pabiloian behiak zatitzeko industria ezartzeko obretarako baimena.

#### A. AURREKARIAK

- A.1. 2021eko ekainaren 23an, Carlos Templado Vallejo jaunak, Consultoria y Gestión Integral de Proyectos CTV enpresaren izenean, obra eta jarduera lizentzia eskatu zuen Usurbilgo Udalean behiak zatitzeko industria bat jartzeko Usurbilgo udalerrian.
- A.2. 2021eko abuztuaren 5ean, udal arkitektoaren txostena, jarduera eta obra baimena eskaerei erantzun aurretik ondorengo baldintzak betetzea eskatuz:
  - *Lehenbailehen Azeki haundi kalea 6 pabiloian Obra Amaiera dokumentazioa aurkeztea (obra baimenean zehaztu dokumentazio guztiarekin), lehen erabilera baimena eskatuz, obra egikaritzeko epea amaituta bait dago.*
  - *Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko martxoaren 28an BEREIZTU S.L. enpresari emandako baimena TXOGITXU S.L. enpresari transmititzetik nahi bada, ezinbestean aurrekoarekin batera baimenaren titularitate aldaketa eskatzea.*
- A.3. 2021eko abuztuaren 9an, udal arkitektoak ezarritako baldintzak interesdunei jakinarazi zitzaien.
- A.4. 2022ko martxoaren 1ean, dokumentazioa Osasun Sailera bidali zen, dagokion txostena egin zezan.
- A.5. 2022ko martxoaren 2an, mugakideei jakinarazpena.
  - GUIFOR, SL.

– CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE, SA.

- A.6. Iragarkia, 2022ko martxoaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialarena, espedientea jendaurrean jartzen duena 15 egun baliodunean.
- A.7. 2022ko martxoaren 17an, udalean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aldeko txostena jaso da.

## B. TXOSTENA

- B.1. Aurrekarietan adierazi den bezala, jarduera sailkaturako lizentzia eskatu da, Usurbilgo udal barrutian behien zatiketarako industria jartzeko.
- B.2. Jarduera hori gauzatuko den industria-pabiloi bat eraberritu eta egokitu nahi da.
- B.3. Pabiloi horrek ez zuen lehen erabilerako lizentziarik, eta, beraz, 2021eko abuztuaren 5ean interesatuari eskatu zitzaion beharrezko dokumentazioa aurkezteko pabiloi eraikiaren lizentzia lortzeko.
- B.4. Lehen erabilera baimena lortu da eta, beraz, jarduerarako lizentzia lehenik lortzeko eta obretarako lizentziaren ondoren tramiteak egiten jarrai daiteke.
- B.5. **KOKALEKUA:** Lizentziaren xede den industria pabiloia helbide honetan dago:
- AZEKI AUNDI kalea, 6, 20170, Usurbil, Gipuzkoa.
- B.6. Pabiloia, indarrean dagoen Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, hiri-lurzoruan dago, zehazki, **A-104 (C/SE) ATALLU** eremuan.
- B.7. Hona hemen eremuaren ezaugarrien fitxan ezarritako determinazio batzuk:
- **Irizpide eta helburuak:** *Planeamendua garatua eta partzialki eraikia eta urbanizatuzko industri lurzoru berria hiri lurzorura gehitzea, lekuko industriaren zabalpenaren beharrari bide emateko.*
  - **Erabilerak.** *Erabilera industrial izango da, garbigunearen kasuan izan ezik.*  
  
*Solairuan okupaturiko azaleraren %50 gaindituko ez duen tarteko solairua eraiki ahal izango da, bulego, komun edo antzeko erabileretako.*
  - **Eraikuntzen baldintzak:** *Eraikuntzen baldintzak behin betiko onartutako Plan Partzialak ezarritakoak izango dira.*  
  
*Gehiengo altuera eraikigarria, 9 m. Altuera handiagoa beharrezkoa balitz, ekoizpen sistemagatik justifikatua izango da.*  
  
*Gehiengo azalera industrial eraikia 1'5 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> (patzela okupatuaz konputaturik).*
- B.8. **ERABILERA HIRIGINTZA IKUSPEGITIK:** Aurkeztutako exekuzio proiektuan adierazten den bezala:

*Se redacta el presente Proyecto de “reforma de nave para traslado y ampliación de industria de despiece de vacuno”, que se pretende implantar en el número 6 de Azeki Aundia Kalea, Polígono Industrial de Atallu.*

Lehengai hauek erabiliko dira:



- *Canales de vacuno (Origen España)*
- *Canales de vacuno (Origen resto CE)*
- *Chuleteros de Vacuno (Origen España )*
- *Chuleteros de Vacuno (Origen resto CE)*
- *Pistolas de Vacuno (Origen España )*
- *Pistolas de Vacuno (Origen resto CE)*
- *Otros Productos Cárnicos Comercializados*
- *Envases y cartonajes*

Prozesutik produktu hauek aterako dira:

- *Despiece de chuleteros*
- *Despiece de bolas vacuno*
- *Despiece de resto de piezas vacuno*
- *Otros productos cárnicos comercializados*

Lehen esan bezala, **A-104 ATALLU** eremuaren erabilera industrial da, garbigunearen kasuan izan ezik.


Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9. artikulua ezartzen duenez, industria erabileren artean jarduera hauek sartzen dira: *Era guztietako produktuen erdiespen eta eraldaketazko industriak jasotzen ditu, beraz, ezarri nahi den jarduera onargarria da.*

Beraz, proposatutako erabilera Arau Subsidiarioetan proposatutakoarekin bateragarria da.

- B.9. **JARDUERA SAILKATUA:** Ezarri nahi den jardueraren ezaugarriak dira:
- **ERABILERA:** industrial, behien zatiketaren industria.
  - **AZALERA** (Ekoizpen gunearena): 1.700,14 m<sup>2</sup> + 300,79 m<sup>2</sup> (2.000,93m<sup>2</sup>)
- B.10. **JARDUERA-LIZENTZIA:** Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinean ezarritakoaren arabera, jarduera lizentzia beharko dute, besteak beste, jarduera eta instalazio sailkatu hauek:
- Industriak, oro har.*
- B.11. Beraz, TXOGITXU SL enpresak egin nahi duen jarduerak **jarduera-lizentzia** behar duten jarduera sailkatuetarako zehazten den prozedura bete beharko du.
- B.12. **NEURRI ZUZENTZAILEAK:** 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrean ezarritakoaren arabera, eta Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu.** Osasun Sailaren oniritzia lortu da jadanik.
- B.13. **LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERA EDO INSTALAZIOAK:** Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen I. Eranskinean ezarritakoaren arabera, instalatu nahi den jarduera, behia

zaticatzea, ez dago lurzorua kutsatzen duten jarduera eta instalazioen barruan.

- B.14. Gainera, jarduera instalatu nahi den lurzorua ez dago Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan.



- B.15. Beraz, ez da beharrezkoa izango jarduera 4/2015 Legean ezarritako prozeduren arabera ezartzea.

- B.16. OSASUN SAILAREN TXOSTENA:** 2022ko martxoaren 1ean, dokumentazioa Osasun Sailera bidali zen, dagokion txostena egin zezan.

- B.17. 2022ko martxoaren 17an jaso zen Usurbilgo Udalean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aldeko txostena.

*Aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 10/2021 Euskadiko Ingurumen Administrazio lege orokorrean; apirilaren 23ko, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa den 7/2012 Legean; eta bat datozen gainerako arauetan xedatutakoaren arabera, **ALDEKO osasun-txostena ematen da** ondoko puntuak betetzera baldintzatuta:*

Hala ere, txosten horretan baldintza hauek ezarri dira:

- *Funtzionamenduan ura erabiltzen duten eta aerosola sortzen duten barneko zein kanpoko instalazio guztiak (UBS, lurruntze-kondentsadorea, etab.) legionelosi hedatzeko foku bihur daitezke; beraz, legionelosi prebenitzeko eta kontrolatzeko higiene- eta osasun-irizpideak ezartzen dituen uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretua bete beharko da.*
- *853/2004 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, animalia-jatorriko elikagaien higienari buruzko arau espezifikoak ezartzen dituen, eta 852/2004 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, elikagaien higienari buruzkoa, bete beharko da.*
- *Elikagaien eta Elikagaien Enpresen Osasun Erregistro Orokorrean inskribatu beharko da, 191/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.*

Beraz, Osasun-txostena ALDEKOA DA.

- B.18. **AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:** Aurkeztu den dokumentazioa honako hau da:

- Eskaera orria.

- Nabea berritzeko proiektua, behiak zatikatzeko industria lekuz aldatu eta handitzeko (bisatua).

B.19. Proiektuak ondorengo dokumentuak barneratzen ditu:

- Memoria.  
Memorian zehazten dira jardueraren ezaugarriak, zein ingurunetan kokatzen den, ingurumenean izan dezakeen eragina eta erabili nahi diren neurri zuzentzaileak.
- Planoak
- Baldintza-agiria.
- Aurrekontua.
- Segurtasun eta osasun azterlana.

B.20. **URA AGENTZIAREN EBAZPENA:** Ebazpenean adierazten denez, barne-egokitzapeneko obrak egingo diren eraikina polizia-eremutik kanpo kokatuta dagoenez, ez da beharrezkoa izango administrazio hidraulikoaren baimena obra horiek egiteko.

## C. ONDORIOAK

- C.1. Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik eta txosten honetako A eta B ataletan esandakoa kontuan izanik, teknikari honen iritziz, eta bestelako arrazoi juridikoak salbu, bidezkoa da:
- Atallu Industrialdeko Azeki Aundi Kaleko 6. zenbakian kokatutako pabiloian behiak zatitzeko industria ezartzeko jardueraren ezarpenari buruzko ALDEKO hirigintzako txostena egitea.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** TXOGITXU, S.L. enpresak Atallu industrialdeko Azeki aundi kalea 6 helbidean ezarri nahi duen haragi-produktuak egiteko jarduerari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzailak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

**BIGARRENA:** Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

**HIRUGARRENA:** Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

## 4.- HAASETAKO A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.22 EXEKUZIO UNITATEAN ERAIKITAKO ETXEAREN (GOIZTIRI ETXEA – KALEZAR 48A) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0333

JOSU OIARTZABAL ZAPIRAIN jaunak eta IDOIA UDABE PAGOLA andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitatean

eraikitako etxearen (Goiztiri etxea – Kalezar 48A) lehen erabilera baimena eskatu du.

#### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 24an, JOSU OIARTZABAL ZAPIRAIN jaunari eta IDOIA UDABE PAGOLA andereari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.11 Exekuzio Unitatean famili bakarreko etxebizitza eraikitzeke udal baimena eman zion.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	327.445,31 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>354.008,56 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: <b>826,29 €</b>
	Fidantza (%120): <b>991,50 €</b>
Urbanizazio kargengatik Udalari eman beharreko konpentsazio ekonomikoa	10.716,00 €
Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 27. artikulua xedatutakoari jarraituz, hirigintza-erakigarrtasun haztatuaren % 15ari dagokion konpentsazioa	31.816,00 €

Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2014ko irailaren 8an 991,50 €-ko fidantza (IE 33-2014) ezarri zuten kontuhartzailtzan.

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, JOSU OIARTZABAL ZAPIRAIN jaunak eta IDOIA UDABE PAGOLA andereak, andereak, Kalezar 48A helbidean eraikitako etxearen (Goiztiri etxea) lehen erabilera baimena eskatu dute.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal aparejadoreak, Imanol Etxeberria Galarza jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2022ko apirilaren 6an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak Horrela, Txosten Teknikoa Irakurri Ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko HEU 107.22 Exekuzio Unitatean eraikitako etxearen (Goiztiri etxea – Kalezar 48A) lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin:

- Obra berriko aitortza aurkeztu beharko da hilabeteko epean, etxearen banaketa horizontalaren aitortzarekin batera.
- Etxebizitza berriri udal eroldan alta eman aurretik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman beharko zaio U-4 inprimakiaren bitartez. Beraz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan alta eman aurretik inork ezingo du etxebizitzan errolatu.
- Etxebizitza berrika Kalezar 48 A helbidea izango du.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2014ko irailaren 8an ezarritako 991,50 €-

tako fidantza (IE 33-2014) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 3035 0140 38 1400024124.

**HIRUGARRENA:** Obra baimena eman zen exekuzio proiektuaren aurrekontua egikaritzan 26.563,25 €-tan handitu denez, aurrekontuaren handitzeari dagokion zergak ordainaraztea.

**LAUGARRENA:** JOSU OIARTZABAL ZAPIRAIN jaunari eta IDOIA UDABE PAGOLA andereari jakinaraztea bide publikora isurtzen duen euri urek eragin ditzakeen kalteen ardura bere gain hartu beharko dutela.

**BOSGARRENA:** 2022 urteko Usurbilgo udal ordenantza fiskalek etxebizitzan lehen erabilera baimenari dagozkion tasak ordainaraztea.

**SEIGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuei, udal erroldako arduradunari eta kontuhartzaileari ematea.

## 5.- BIZKARRA KALEA 9 ETXEAN IGOGAILUA ORDEZKATZEKO ETA OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0089

BIZKARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20495297) ordezkartzan diharduen ANE GARMENDIA PLACENCIA andereak, Bizkarra kalea 9 etxean igogailua ordezkatzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 68.747,48 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 255 €
	Fidantza (%120): 306 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martínez jaunak, 2022ko apirilaren 29an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** BIZKARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20495297) ordezkartzan diharduen ANE GARMENDIA PLACENCIA andereari, Bizkarra kalea 9 etxean igogailua ordezkatzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 255 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (306 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**306,00 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.04/2022-0089" jarriaz

kontzeptuan.

- ANE GARMENDIA PLACENCIA eta PATRICIA CASTRO ARISTIZABAL arkitektoek 2022ko urtarrilean (EHAE0 2022-02-21) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Egindako obraren balioari dagozkion zergak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarriz gero.
- Obrak gehienez ere 6 hilabeteko epean hasi beharko dira, emakidaren erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere urtebeteko epean bukatu. Bestela lizentzia iraungi eginen da. Lanak eteteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izanen da, berariazko baimena izan ezean.
- Obrak egiterakoan, aurkeztutako eskaeran esandakoa egin behar da.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- Horrez gain, hauxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezkio erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagozkion baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Fatxadatik materialak gora jaso edo behera jaisteko polea edo karga-igogailuren bat jarri beharra egongo balitz, beharrezkoa den baimena eskatu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Lan baten ezartzea beharrezkoa den edozein aldazio mota, lan hori eraikuntzaren kanpoaldean nahiz barrualdean izan, goialdean edo fatxadan aurrez behar den lizentzi edo baimena eskatu beharko da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Kalean lanik egin beharko balitz edo tresneriatza ipini beharra egon (konpresorea, bolketea...) babes hesia jartzeko baimena eskatu behar da (lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da), hartuko duen luza-zabalera eta neurriak zeintzuk izango diren aipatuz, eta eskaera horrekin batera, solairuaren plano bat bidaliz, hesitza hori non jarriko den zehatz-mehatz azalduko duena.
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri*

*Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza bete beharko ditu.*

- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsazaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
  - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
  - Obra amaierako argazkiak.
  - Iggogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## **6.- ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 2 ETXEAN IGGOGAILUA ORDEZKATZEKO ETA OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0070

Atxegaldeko ERDIKO KALEA 2 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20308664) ordezkartzan diharduen ANE GARMENDIA PLACENCIA andereak, Atxegaldeko Erdiko kalea 2 etxean igogailua ordezkatzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko udal baimena eskatu du.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 69.864,49 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 680,28 €
	Fidantza (%120): 816,34 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martínez jaunak, 2022ko apirilaren 29an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Atxegaldeko ERDIKO KALEA 2 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20308664) ordezkaritzan diharduen ANE GARMENDIA PLACENCIA andereri, Atxegaldeko Erdiko kalea 2 etxean igogailua ordezkatzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 680,28 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (816,34 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.  
  
**816,34 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2022-0070*" jarriaz kontzeptuan.
- ANE GARMENDIA PLACENCIA eta PATRICIA CASTRO ARISTIZABAL arkitektoek 2022ko urtarrilean (EHAEO 2022-02-16) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Egindako obraren balioari dagozkion zergak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarritz gero.
- Obrak gehienez ere 6 hilabeteko epean hasi beharko dira, emakidaren erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere urtebeteko epean bukatu. Bestela lizentzia iraungi eginen da. Lanak eteteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izanen da, berariazko baimena izan ezean.
- Obrak egiterakoan, aurkeztutako eskaeran esandakoa egin behar da.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- Horrez gain, hauxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezkari erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.



- Klean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagokion baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Fatxadatik materialak gora jaso edo behera jaisteko polea edo karga-igogailuren bat jarri beharra egongo balitz, beharrezkoa den baimena eskatu behar da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Lan baten ezartzea beharrezkoa den edozein aldazio mota, lan hori eraikuntzaren kanpoaldean nahiz barrualdean izan, goialdean edo fatxadan aurrez behar den lizentzi edo baimena eskatu beharko da, eta hau lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da.
- Klean lanik egin beharko balitz edo tresneriatza ipini beharra egon (konpresorea, bolketea...) babes hesia jartzeko baimena eskatu behar da (lan baimenaz aparte dagoen gauza bat dela zehazten da), hartuko duen luza-zabalera eta neurriak zeintzuk izango diren aipatuz, eta eskaera horrekin batera, solairuaren plano bat bidaliz, hesitza hori non jarriko den zehatz-mehatz azalduko duena.
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsatzaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.
- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak, EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
  - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
  - Obra amaierako argazkiak.
  - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan,**

**baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarra bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**